

# Hezkuntza eta Kirol Fakultateko hiri-hondakinen kontenedoreak identifikatzeko Kartel Lehiaketaren Oinarriak

## Helburua, lehiaketaren garapena eta antolaketa

Lehiaketa honen helburua Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Hezkuntza Eraikineko hiri-hondakinen edukiontzia identifikatzeko kartelak aukeratzea izango da.

Lehiaketan parte hartzeko, nahikoa izango da Fakultateko hiri-hondakinen edukiontzia (papera, ontziak, beira eta organikoa) identifikatzeko egindako kartelak, euskarri digitalean (pdf, tiff, jpg, jpeg), hurrengo web-helbideko inprimakiaren bidez bidaltzea: <https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/ekintza-murritztea>.

**Kartelak bidaltzeko azken eguna 2021eko apirilaren 27a izango da, 23:59tan.** Bidalitako kartel guztiak aztertu ondoren, maiatzaren 7an, lehiaketaren irabazlearen eta bigarren sailkatuaren izenak argitaratuko dira iragarki-tauletan, Fakultateko web-orrian ([www.ehu.eus/es/web/hezkuntza-kirol-eskola](http://www.ehu.eus/es/web/hezkuntza-kirol-eskola)) eta hurrengo web-helbidean: <https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/ekintza-murritztea>.

Lehiaketa hau "EKINTZA-MURRIZTEA. Lege klasikoak berrasmatzea gure Campusaren etorkizun iraunkorrago baterako: kontsumoak eta hondakinak murrizteko ekintzak" proiektuari esker antolatzen da (Campus Bizia Lab 2020/21).

## Kartelen ezaugarriak

Karteletan edukiontzi bakoitzean bildu beharreko **hondakinaren izena** agertu beharko da eta hondakin mota bakoitzarentzat (papera, ontziak, beira eta organikoa) edukiontzian bota daitezkeen hondakinak identifikatzeko **irudiak, argazkiak, marrazkiak eta/edo letrak** erabili daitezke. Parte-hartzaileek askatasun osoa izango dute sartu beharreko irudiak aukeratzeko, baina betiere adierazgarriak eta edukiontzia hondakinarekin lotutakoak izan beharko dute.

**Neurriak:** DIN A3 tamaina (429x297 mm); antolaketa bertikala edo horizontala, egileak aukeratua.

**Hizkuntza:** euskara eta gaztelania (kartel bakarra bi hizkuntzetan).

**Formatua:** pdf, tiff, jpg edo jpeg, gutxienez 300 ppp-ko kalitatearekin.

**Originaltasuna/plagioa:** parte-hartzaileek aurkezten dituzten kartelak aurrez argitaratu gabeak izan beharko dute, eta ezin izango dira antzeko ezaugarriak dituzten edota beste edukiontzi batzuk identifikatzeko erabiltzen diren kartelen, argazkien edo marrazkien kopia edo plagio zuzena izan. Egileen erantzukizuna izango da kartelaren egiletasunarekin, tipografiarekin, edota argazki eta irudien erabilerarekin lotutako edozein erreklamazio.

## Parte-hartzaileak

Lehiaketan, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasleek parte har dezakete.

## Sariak

**Campuseko ELKAR denda**n uztaila baino lehen gastatzeko bi bonu banatuko dira.

- Lehenengo saria: 75 €-ko bonua
- Bigarren saria: 50 €-ko bonua

Saritutako kartelak Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza eta Kirol Fakultateko edukiontzia identifikatzeko erabiliko dira.

## Epaimahaia

1. Lehiaketako saridunak horretarako izendatutako epaimahai batek proposatuko ditu. Campus Bizia Lab 2020/21 programaren barruan kokatzen den "EKINTZA-MURRIZTEA. Lege klasikoak berrasmatzea gure Campusaren etorkizun iraunkorrago baterako: kontsumoak eta hondakinak murrizteko ekintzak" proiektuan parte hartzen duten pertsonen osatutako epaimahaia.
2. Epaimahaiaren azken erabakia 2021eko maiatzaren 7an argitaratuko da. Lehiaketaren emaitza zuzenean jakinaraziko zaie irabazleari eta bigarren sailkatuari, eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko

web-orrian argitaratuko da ([www.ehu.eus/es/web/hezkuntza-eta-kirol-fakultatea](http://www.ehu.eus/es/web/hezkuntza-eta-kirol-fakultatea)), baita zentro horretako iragarki-taulan eta <https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/ekintza-murritztea> web-orrian ere.

3. Epaimahaiak, saria emateko proposamena egiteko, kartelaren ikusgarritasunaz gain, bere kalitate grafiko edo plastikoa, iragarpen edota informazio helarazteko eraginkortasuna eta erreproduzio baldintzak baloratuko ditu.
4. Epaimahaiak saria eman gabe uzteko aukera izango du aurkeztutako lanek saria jasotzeko behar beste merezimendu ez baldin badute.
5. Epaimahaiaren erabakiak apelaezinak izango dira beti. Lehiakideek, lehiaketa honetan parte hartze hutsagatik, berariaz uko egiten diete mota guztietako erreklamazioei.

### Saritutako kartelak

1. Lehen eta bigarren sariaren irabazleek egile-eskubideak (erreproduzioa, etab.) EHUri lagako dizkiote, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko edukiontzietan erreproduzitu ahal izateko.
2. Epaimahaikideek saritutako lanetan aldaketaren bat sartzeko eskubidea izango dute, baldin eta inprimatzeko zailtasun teknikoak baleude edo oinarri hauetan hasiera batean agertzen ez den testu edo logotiporen bat sartu ahal izateko.

### Datu pertsonalen tratamendua

Parte-hartzaileek beren izena lehiaketa honetako antolatzaileek egokitzat jotzen dituzten bitartekoen bidez argitaratzea onartzen dute. Parte hartzeko inprimakien bidez bidalitako datu pertsonalak irabazleekin harremanetan jartzeko, sarien banaketa gauzatzeko eta etorkizunean interesgarriak izan daitezkeen jardueren berri emateko erabiliko dira soilik.

### Azken araua

Lehiaketan parte hartzeak berarekin dakar parte-hartzaile guztiek oinarri hauek ezagutu eta onartzea, eta horregatik ezin izango dituzte inpugnatu lanak aurkeztu ondoren.

**Edozein zalantza argitzeko, Arantza Juarros-ekin harremanetan jar zaitezke hurrengo posta elektronikoaren bitartez: [arantza.juarros@ehu.eus](mailto:arantza.juarros@ehu.eus)**